

INFO

2024ko abendua

Irakasleak EAE



☐ irakaskuntza.lab.eus

✉ irakaskuntzaaraba@lab.eus

irakaskuntzabizkaia@lab.eus

irakaskuntzagipuzkoa@lab.eus

Hezkuntza Sailak ez dauka irakasleon lan baldintzak hobetuko dituen akordio arautzailea negoziatzeko benetako borondaterik

Atzo, abenduak 9, bigarren mahai sektoriala izan genuen Lakuan. Ikasturteko lehenengo mahaian, urriaren 24an, Hezkuntza Sailak akordio arautzailea negoziatzeko modua akordio partzialen bitartez izango zela esan zigun, baina guk ezezo borobila eman genion proposamenari. Ondorioz, Akordio arautzaile berri baterako edukiak gaika negoziatzeko genituela adostu genuen, eta gai bakoitzean adostasuna egon ezean ez litzaioke hurrengoari helduko. Bada gaurko mahaira gai horietako bi ekarri dituzte: gazteberritzea eta ordainsariak.

Gazteberritze plana

Hezkuntza Sailak aurkeztutako proposamenean gabeziak ikusi ditugu eta ez ditugu nahikotzat jotzen. Izan ere, LABentzat lehentasuna duen gaia da honakoa eta, gaur gaurkoz, administrazioak ez dio gaiari dagokion garrantziarekin heltzen. Beraz, jasotako proposamen horri ekarpenak egin dizkiogu. Hala ere, oso urrun gaude beraiek proposatutakoarekin, eta ondorioz, langileekin batera landutako aldarrikapen taula defendatzen jarraituko dugu. Gure helburua langileak ahalik eta azkarren eta modurik duinenean erretiratzeko aukera izatea da. Horregatik, zerbitzu publikoetako langile ororen erretiro txanda lortu bitartean, jardunaldi murrizketak erretirora arte zabaltzea eta hauek metatzeko aukera izatea eskatu du LABek.

Ordainsariak

Guk gure aldarrikapenei heldu diegu, eta "lan berdina, soldata berdina" eta "hemen erabaki" aldarriak mahaira eraman ditugu, baita zerbitzu publikoetako langileok galdutako %20ko eros-ahalmena berreskuratze bidean irakasle guztientzat soldata igoerak eskatu ere; zoritxarrez, Hezkuntza Saila ez dago prest ekarpen horiek kontutan hartzeko. Izan ere, langile batzuei lotutako osagarri igoerak proposatu ditu administrazioak.



Bi gai horien ondoren, LABentzat ezinbestekoa den lan osasunaren puntua jorratu da. Administrazioak bi protokolo aurkeztuko idituela adierazi du (lan egokitzapen protokoloa eta lanpostu aldaketarako protokoloa), baina gaur-gaurkoz ez dugu informazio gehiagorik. Protokoloak jasotzean, LABek ekarpenak egingo dizkio langileen osasuna erdigunean jarritz. Azterketa medikuak gutxienez bi urtetik behin egiteko eskatzeaz gain, arrisku psikosozialen eta lanpostuen azterketa egin dezan eskatu dugu.

Bukatzeko, 2025eko udaran Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan deituko diren EPEei begira negoziaketa eza eta negoziatu beharrekoak aldebakarrez erabaki eta publiko egin izana salatu dugu.

Gaurko mahaiaren ondoren, ondorio argi batekin irten gara: Hezkuntza Sailak ez dauka irakasleon lan baldintzak hobetuko dituen akordio arautzailea negoziatzeko benetako borondaterik. Beraz, ikasturte hasieran abiatutako dinamikekin jarraituko du LABek langileak mobilizatzen akordio arautzaile (lan hitzarmen) berri bat lortzeko helburuz.

Hezkuntza publikoa indartu!

■■■
BAGARA *zurekin* **BAGARA** *Un sindicalismo diferente*

